

IBARGUEN-CACHOPIN KRONIKA: EDIZIOA ETA AZTERKETA

Tesiaren egilea: Julen Arriolabengoa Unzueta

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Hizkuntzalaritza eta euskal ikasketak

Tesi-zuzendaria: Joseba Lakarra Andrinua

Tesiaren laburpena:

Lehen helburua *Crónica de Iburgüen-Cachopín* izenaz ezaguna den eskuiz-kribua, aurki daitekeen bakarra, 1580-1620 bitartean idatzia, transkribatzea eta argitaratzeko moduan apailatzea izan da. Jatorrian egileek osatutako lanaren herena baino ez da egun kontserbatzen, bi agiritegitan banatua eta oso egoera kaskarrean. Materialok bildu, irakurri eta antolatu ondoren, CESIC-en irizpideei jarraiki transkribatu ditugu, lana hiru tomotan antolatu eta berreraikiz, egileen asmoak gogoan. 2000 folio inguru transkribatu dugu, eta inoiz argitaratu gabeko berri historiko ugari utzi dugu ikertzaileen esku, bereziki Bizkaiko leinuei buruzkoak.

Egileek *Corónica General Española y Sumaria de la Cassa Vizcaína* deitu zuten lan hau XVI. mendeko historiografiaren adibide eder eta erakargarria da, baina euskal hizkuntzalaritzarako aparteko garrantzia du, bertan aurkitzen baitira euskararen literaturarako eta hizkuntzaren historiarako balio handia duten zenbait material eta lekukotasun.

Testuaren azterketan murgildurik, egileen inguruan zegoen nahasmena argitu eta datu berri zenbait eman ahal izan dugu. Halaber, egileek erabilitako iturri bibliografikoak aztertzean ezezagunak genituen autoreak aurkitu ditugu, euskal historiografian bere garrantzia izango dutenak. Kronika honetako kontakizunak aintzat hartuta eta garaiko histolerialarien lekukotasunekin alderaketa eginez, XVI. mendeko euskal historialarien imaginarioa osatu dugu, datu interesgarri bezain harrigarriak plazaratuz, eta XVI. mendean gure hizkuntzak bizi zuen egoera sozial eta juridikoa ezagutu ahal izan dugu, azal samarretik bada ere.

Euskal hizkuntza eta literaturaren ikuspegitik *Kronikak* utzitako ondarea txikia da kantitatean (133 berso 12 kantatan banatuak, 20 lerrotan bil daitezkeen 2 prosazko testu, 8 esaera, 26 esaldi, 156 hitzeko hiztegiño bat, 67 hitz solte, 68 euskal izen eta goitzen, 171 izenen azalpen etimologikoak), baina handia garrantzian, euskara zaharrak idatzirik utzitako lekukotasunetan lehenetakoak baitira. Hizkuntza-ondare honen azterketan “Canto de Lelo” gaztelaniazko izenaz ezagun egin zen Kantabriarren Kantuaren azterketan murgildu gara. Ondoren, *Kronikako* eresi eta kantuak, ahozko tradizioetik jasoak, atal berri batean berreditzea izan da gure lehentasunetako bat, Errodrigo Zaretecoren eresiarri eta Butroeko Andreamen Eresiaren bertsio ezezagunari, biak argitarageak, toki berezia emanez. Andramendiko eskriturak deritzen prosazko bi testuei ere tarte zabala eskaini diegu.

Corónica General honetan aurki litezkeen euskarazko materialen bilketa eta azterketan aurrera eginez, atal banatan sailkatu ditugu esaerak, esaldiak, etimologiak eta gaztelaniazko prosan emandako euskal hitz solteak. Eta tesi zabal honi amaiera emateko *Ibarguen-Cachopín Kronikak* eman dizkigun euskarazko materialen hizkera aztertu nahi izan dugu ikuspegi dialektologikotik zein historikotik.

Ibarguen-Cachopín Kronika ikerlarien eskura jartzea lortu dugu, ahal izan dugun ongien bildurik, ordenaturik eta transkribaturik. Gure ustetan lan-ildo interesgarriak ireki ditzakete lan honetan bildutako materialek, edota erreferentzia interesgarriak izan daitezke jadanik irekirik direnetan, zientzia-eremu anitzetan, hala nola Historiografian, Historian, Hizkuntzalaritzan, Etnografian eta abarretan.